

Proiektuetarako jarduerak | 1. Blokea: Aurkezpena eta ekipoak antolatzea

Lehen Hezkuntza. 3 - 7 urte

Zein da zuen kolorea?

	Lehen Hezkuntza 3 - 7 urte
	Maila Ertaina- altua
	Denboralizazioa 6 saio
	Kideak 4 - 6 kide

JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Bideokonferentzia bidez, kide diren lurreldeetako ikasleak elkar ezagutuko dira. Jolasaren bidez, ikastetxe bakoitzari kolore bat egokituko zaio, eta kolore horrek ordezkatuko du proiektuak irauten duen bitartean.

Ikastetxeetako gelak bideoz grabatuko dira. Horretarako, ekintza adierazten duten aditzak erabiliko dira eta taula digital batean partekatuko dira.

JARDUERAREN XEDEA

1. Nazioarteko talde- eta gamifikazio-dinamiketan parte-hartzea bideokonferentzian.
2. Beste ikastetxeekin norberaren ikastetxeko gelak nolakoak diren partekatzea eta, horretarako, ekintza adierazten duten aditzak erabiltzea.

JARDUERAREN GARAPENA

1. Fasea: Prestatzea




Web kamera duen ordenagailua, bozgorailuak, mikrofonoa, arbela digitala edo proiektorea.



1. Urratsa: Koloreen jolasa.

Jarduera honetan, kide diren lurraldeetako ikasleak elkar ezagutuko dira. Horretarako, irakasleek Twinspacearen bidezko bideokonferentzia bat antolatuko dute. Bertan, ikasle eta irakasleak elkar agurtuko dute eta koloreak errepasatuko dituzte jolas honen bidez:

Aldez aurretik, irakasle bakoitzak koloreak dituzten txartelak prestatuko ditu. 1. ikastetxeak serie bat erakutsiko du, gainerako ikasleek serie berdina erreproduzituko dute. 2. ikastetxeak seriearen hurrengo elementua gehituko du, gero 3. ikastetxeak eta, horrela, guztiek parte hartu arte. Jarduera errepikatu egingo da ikastetxe guztiek seriea hasi arte.



2. Urratsa: Koloreak esleitzen ditugu.

Irakasle bakoitzak kutxa handi bat du, koloretako puxikez beteta. Ikastetxe adina kolore izango ditu. 1. ikastetxeko ikasle batek, begiratu gabe, puxika bat aterako du bigarren ikastetxearentzat. Kolore hori izango da 2. ikastetxearena izango da eta gainerako ikastetxeek kolorea baztertu egingo dute egingo dute. 2. ikastetxeak 3.arena aterako du, eta horrela guztiek haien kolorea izan arte.



3. Urratsa: Zein da zure kolorea?

Taula bat egingo da eta bertan jasoko dira ikastetxearen izena, hiria, lurraldea eta egokitutako kolorea. Ondoren, TwinSpacean argitaratuko da. Horrela, nazioarteko ekipoen lan kolaboratiboa agertzen duen proiektuaren horma iraunkorrari hasiera emango zaio.



2. Fasea: Praktikan jartzea

4. Urratsa: “Walking, Walking”

Irakasleek ekintza adierazten duten aditzak errepasatuko dituzte hurrengo urratsarekin hasi aurretik. Hartara, abestiak erabil daitezke, adibidez *“Walking in the jungle”*, *“Walking, walking”*

5. Urratsa: Nolakoa da zure eskola?

Taula digital bat irekiko da eta ikastetxe bakoitzak egokitu zaion kolorearen irudi bat igoko da. Irudian ikastetxearen izena eta lurraldea agertuko behar dira. Kolore bakoitzarekin batera, sticky bat igoko da ikasleek gainerako

ikastetxeetako zein toki ikusi nahi dituzten adieraziz. Horretarako, ikasleek toki horren marrazki bat eta nork bere ikastetxearen gela erakusteko erabiliko duen ekintza irudikatzen duen marrazki bat erabiliko dituzte.

TwinSpacean taula txertatuko da guztiek jarduerak nola doan aurrera ikus dezaten.



6. Urratsa: Txokoak osatzen ditugu

Ikastetxe bakoitzak taula digitalera igo dituen ekintza-aditzak adierazten dituzten aditzak deskargatuko dira. Berrikusiko dira eta ekintza horiek praktikatu dira. Ondoren, koloreztatu eta kide den ikastetxe bakoitzaren txokoetan jarriko dira.

7. Urratsa: Hauxe da nire ikastetxea

Amaitzeko, ikasleek haien ikastetxeko gelak erakutsiko dituzte eta grabatu egingo dira. Ikasleek gainerako ikastetxeetakoek emandako jarraibideak errespetatu beharko dituzte.

Ikastetxe bakoitzak erronka bat proposatuko du astero. Haietan, gainerako ikastetxeek bideo motz bat egin beharko dute, 1' eta 2,5' artekoa. Bideoetan taulan aukeratu dituzten tokiak agertuko dituzte.

Bideoak taula digitalera igoko dira. Horrela, jarduera amaitutzat emango da eta itxi egingo da.

3. Fasea: Datuak biltzea eta jakitera ematea

8. Urratsa:

Jarduerari buruz ahalik eta informazio gehien biltzeko, haren argazkiak eta bideoak egin behar dira. Bideokonferentzia eTwinning Live-n bidez eginez gero, grabatu daiteke.

Gero, irudiak, bideoak edo prozesuaren aurkezpenak TwinSpaceko orrialde batera igo daitezke.



Irakasleek jardueraren garapena komentatuko dute proiektuaren egunerokoan.



PRODUKTUA(K)/ AURREIKUSITAKO EMAITZA(K)

Proiektuan parte hartu duten ikastetxeei buruzko materiala jasoko da. Ikastetxeen izenak Linoit batean bilduko dira.

Proiektuaren horma iraunkorra, nazioarteko ekipoen elkarlana agertuko duena.

Jardueraren garapena agertzen duten argazki eta aurkezpenak, baita bideokonferentziaren grabazio bat ere.

TWINSPEACEKO TRESNAK/KANPOKO 2.0 TRESNAK

- TwinSpace jardueraren argazki eta bideoak partekatzeko.
- Taulak edo horma digitalak: Lino it: linoit.com edo Padlet: <https://padlet.com> -Bideokonferentzia TwinSpacen edo Skypen.
- Vimeo edo Youtube bideoak editatu eta gordetzeko.
- Argazkien aurkezpenak egiteko, Slideshare: <https://es.slideshare.net> edo Photopeach: <https://photopeach.com>